Lan-sozietateei buruzko gida

Ekin taldean

ASLE

Lagundu egin nahi dizugu enpresa-proiektua garatzen

Horretarako, bidai-txartel hau emango dizugu, gau honi buruzko guztia ulertzeko bidaia has dezagun: lan-sozietateak.

Pertsonak ardatz dituen enpresa-eredu berri bat ezagutzeko gonbita egiten dizugu.

ZER TOPATUKO DUZU GIDA HONETAN?

01 Gizarte ekonomiaren legea

02 Zer dira lan-sozietateak?

03 Zergatik eratu lan-sozietate bat?

04 Lan-sozietateen arauketa

Gizarte ekonomiaren legea

01 ZER DA GIZARTE EKONOMIA?

02 ZEINTZUK DIRA PRINTZIPIOAK GIZARTE EKONOMIAN?

03 ZER DIRA LAN SOZIETATEAK?

Ezin gara murgildu lan-sozietateen ereduan aurretik haien testuingurua ezagutu gabe.

Beraz, lehenik eta behin, beharrezkoa da, Gizarte Ekonomiaren Legea azaltzea. Lege horrek barne hartzen ditu gizarte ekonomia sozialarekin lotura duen oro eta erakunde bakoitzaren berariazko araudiak.

Galdera batzuk erantzungo ditugu, argibide gehiago emateko:

ZER DA GIZARTE EKONOMIA ?



Gizarte ekonomiak lotura du arlo pribatuko ekonomia-eta enpresa-jarduerekin: arlo horretan, erakundeen xedeak dira kideen interes kolektiboa, interes orokor ekonomiko/soziala edo biak.

ZEINTZUK DIRA PRINTZIPIOAK GIZARTE EKONOMIAN?

- Komunitatearekiko konpromisoa.
- Pertsonak eta eraldaketa soziala bat datoz helburu ekonomikoarekin.
- Lan egiten dute barneko elkartasunaren eta gizarte-ongizatearen alde.
- Langileek parte-hartze aktiboa dute enpresaren kudeaketan eta erabakietan.

Zer dira lan-sozietateak?

Pertsonak daude enpresaren erdigunean, eta, beraz, lehiakortasuna handiagoa da.

Lan-sozietatea enpresa-eredu bat da, eta langileen esku dago kapital sozialaren zatirik handiena. Gainera, parte hartzen dute bai kudeaketan, bai enpresaren erabakietan.

Lan-sozietate bat eratzeko baldintzak

HASIERATIK AUKERATU BEHAR DA SOZIETATEAREN FORMA (EMLS EDO LSA), ETA HORRELA ERATUKO DA.

01 Gutxienez 2 bazkide egotea.

02 Kapital sozialaren zatirik handiena langile mugagabeena izatea.

03 Bazkideek ez izatea kapital sozialaren %33 baino gehiago, kasu batzuetan izan ezik, adibidez:

Lan-sozietatea bi bazkide langile mugagabek sortzea, % 50eko partaidetzarekin, eta gehienez 3 urte behar izatea kapital sozialaren herenaren gehienekora egokitzeko.

Bazkideak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabekoak edo elkarteak izatea: kasu horretan, parte-hartzea handiagoa izan daiteke, betiere ez bada iristen kapital sozialaren %50era.

04

Bazkideak izan daitezke:



Langileak:
lan egin eta kapitala jartzen dute.

Lan egiten ez dutenak:
soilik kapitala ematen dute.

05

Langile mugagabeen (bazkideak ez direnak) urteko lanorduek ez gainditzea langile bazkideek egindako ordu guztien %49.

06

Erabakiak hartzeko eta mozkinak banatzeko, kontuan hartzen dira bazkide bakoitzaren enpresaren jabetza-ehunekoak.

07

Bazkide bakoitzaren erantzunkizuna hark emandako kapital sozialak mugatzen du.

Enpresa-garapenaren eta pertsonen interes nahiz helburuen arteko oreka ahalbidetzen du.

Zergatik eratu lan-sozietate bat?



Lan-sozietateek, **tokiko garapena** eta **gizarte-kohesioa** ahalbidetzeaz gain, kalitateko enplegua sustatzen dute, langile bazkideek hartzen baitituzte erabakiak.

Mota horretako enpresak eratzeak **eragin positiboa du ekintzaileen artean**; izan ere, **aukera ematen die beraien lanpostua sortzeko**, proiektu partekatu baten bidez.





ONURAK
ERAGIN SOZIALA



Lan Sozietatearen eredu demokratikoak langileen interesak zaintzen ditu, **talentuari eusten dio** eta **aberastasunaren banaketa ekitatiboa sustatzen du**. Gainera, **lurraldean sustraitzearen**, alde egiten du, eta, ondorioz, aurrekaririk gabeko tokiko garapenaren alde.

Lan-sozietate batek langileei ematen dien **kalitateko enplegu egonkorra** da, zalantzarik gabe, **bake soziala** lortu ahal izateko bitartekoa.

Lan-sozietateek **lanpostuen suntsiketa murrizten dute** krisi-garaietan, egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna handiagoak baitira.

ONURA LEGAL ETA EKONOMIKOAK

Gizarte Segurantzako hobariak.

Erantzunkizuna, parte hartzeko eskubideak eta botoa jarritako kapitalak mugatzen ditu.

Bazkide kapitalisten sarbidea kapital sozialera.

Sarbidea langabeziaren kapitalizazio oso edo partzialera, PFEZrik gabe.

Enpresak sortzeko dirulaguntza espezifikoak.

Kotizazioa Gizarte Segurantzaren araubide orokorreak, prestazio guztiekin, betiere enpresan soilik 2 bazkide ez badaude eta enpresa familiarrak ez badira.

Bazkideak sartzeko eta enpresa sendotzeko dirulaguntza garrantzitsuak.

Kapital sozialaren zatirik handiena langileen eskuetan dago.

Onurak ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentuen gaineko zergan (%99ko hobaria bazkide diren langile gehienen jatorrizko enpresaren ondasun eta eskubideak erosteko).

PFEZko kenkariak, akzioak/partaidetza sozialak erosteagatik.





Aipatutako onurez gain. Bloketan bana ditzakegu lan-sozietateen abantailak:

ABANTAILAK

- → **Bazkideak**
- → **Langileak**
- → **Kapital soziala**
- → **Proiektua**

Bazkideak

Gutxienez bi bazkide behar dira jarduera abiarazteko.

- Langile bazkideen eta langile soilen artean parte-hartzea sustazten da guztiak proiektu beraren parte direlako.
- Bazkideentzat abantaila da langileak ere proiektuan inplikatzea.
- Oinarritik antola dezakete kudeaketa eta egitura.
- Pertsona guztien inplikazioa ahalbidetzen dute.

Kapital soziala

Hirugarrengo baten kapitala jasotzeko orduan, langileak ez diren pertsonek kapital sozialaren %49ko muga dute.

- Kanpoko kapitalaren inbertsioa eta interesa erakartzen dituzte.
- Laguntzak jasotzen dituzte, bazkide berriek emandako kapital sozialean oinarrituta.
- Enpresa-eredu honek eragin sozialeko inbertsioak ahalbidetzen ditu.
- Ez dago bazkide bakar bat erabateko kontrolarekin.
- Kudeaketa eta erabaki partekatuak.

Langileak



- Langile bazkidea langile ekintzaile bihurtzen da.
- Langileek enpresan gora egin nahi izaten dute bazkide bihurtu ondoren.
- Konpromiso handiagoa eta parte-hartze handiagoa erabakietan.

Proiektua

- Ekintzailetza-arriskua murrizten du.
- Talde-sentimendua sortzen du.
- Egokia da enpresa familiarrentzat, ETE-entzat, *startup* eta *spin off* motako enpresentzat eta ikasle-enpresentzat.
- Proiektuaren finkapen-bermeak hobetzen ditu.
- Langileen garapenaren eta enpresaren garapenaren arteko oreka bermatzen du.
- Tokiko ekonomia mantentzen laguntzen dute.

Lan-sozietateen erregulazioa

LAN-SOZIETATEAK 44/2015 LEGEAK, URRIAREN 14KOAK, ARAUTZEN DITU (LAN-DESOZIALTASUNEI ETA PARTAIDETUEI BURUZKOAK)





Enpresak lan-sozietate gisa aurrera jarraitu ahal izateko, garrantzitsua da itun edo akordioak lortzea, honako alderdi hauek arautu ahal izateko: bazkideak sartu eta irtetea, mozkinaren tratamendua eta akzio edo partaidetzaren prezioa, besteak beste.

Borondatezkoak dira, baina gomendagarriak; izan ere, segurtasuna eta egonkortasuna ematen dizkiete sozietateari berari eta bertako pertsonei.

SOZIETATE ITUNAK

BELAUNALDIARTEKO ERRELEBOA

Lan-sozietateari esker, enpresak **aurrera jarrai dezake** jabeak erretiratu ondoren, eta **lanpostuak ere mantendu egiten dira**, langileak bazkide bihurtzen baitira. Horri esker, **enpresak lurralde berean jarraituko du**, eta ekarpenak egingo dizkie bai inguruneari eta bai oro har gizarteari.





ASLE

Nor gara?

Euskadiko lan-sozietateak eta partaidetza-enpresak ordezkatzen dituen elkartea gara. 1982. urtean eratu zen elkartea, eta, gutxi gorabehera, **Euskal Autonomia Erkidegoko** lan-sozietate guztiak ordezkatzen ditugu.

ASLEren jabetza enpresa bazkideena da, eta Zuzendaritza Batzordeak ordezkatzen ditu: enpresa bazkide guztiak daude Batzar Nagusian, elkartearen gobernu-organo gorenean.

→ Gure baloreak

→ Zer egiten dugu?

Gure baloreak

PARTE-HARTZEA
Modu kolektiboan hobetzea, pertsona guztien ekarpenak errespetatuaz.

KONPROMEZUA
Inplikazio aktiboa dugu erakundearen garapenean.

EKITATEA
Pertsonen arteko garapen orekatua eta justua sustatzea, berezitasunak kontuan hartuta.

ERANTZUNKIZUNA
Erantzun positiboa ematen diegu ingurunean eragin positiboak sortzeko betebeharrei.

LANKIDETZA
Lankidetza aktiboa dugu, eta modu irekian komunikatzen ditugu ezagutza eta trebetasunak, helburu komunak lortzeko.

AUSARDIA
Ezezaguna dena esploratzen dugu, arrisku eta erronkei aurre eginez, jarrera ekintzailearekin.

Zer egiten dugu?



ORDEZKARITZA ETA KONEXIOA

LAGUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA

AHOLKULARITZA

PRESTAKUNTZA EREDUAN

Lan-sozietateak eta kapitalean langileen partaidetza duten enpresak ordezkatzen dituen Euskadiko enpresa-elkartea gara. **Haien sorrera, garapena eta finkapena sustatzen ditugu**, gizarte-eraldaketaren alde egiteko enpresa-eredu parte-**hartzaile**, **ekitatibo** eta **jasangarriago** batean oinarrituta.

Ezagutu gure enpresa bazkide batzuk

Avocado

Avocado branding eta diseinu estrategikoko estudio bat da, eta Alazne Ustaran eta Cris Reyk sortu zuten. Enpresa, elkarte eta erakundeekin egiten dute lan: diseinuaren bidez audientziekin konektatzen eta hobeto komunikatzen laguntzen diete, enpresari balio erantsia emanez.

Nolakoa izan da zuen ekintzailetza. prozesua?

Elkarrekin lan egiten genuen sektoreko beste enpresa batean, eta ikusi genuen biok geneukala proiektu propio bat sortzeko grina, gure branding eta diseinuaren ikuspegitik. Beraz, erabaki genuen itsu-itsuan jokatzea, esan ohi den moduan, eta Avocadoren aldeko apustua egitea.

Geroztik, hazten ari gara maila pertsonalean eta enpresa-mailan, eta egunero ari gara ikasten enpresa kudeatzen. Pixkanaka, egokitu egin gara, gure prozesuak aldatu eta optimizatu ditugu, gure bezeroen beharretara ondoen egokitzen diren zerbitzuak eskaini ahal izateko beti.

Zergatik aukeratu zenituzten lan-sozietatea eta ASLE?

Ustekabean ezagutu genuen lan-sozietatearen figura, ezagun baten ahotik, eta oso interesgarria iruditu zitzaigun hasieratik. Gustuko dugu sozietate mugatu eta kooperatiboaren arteko nahasketa hori. Jabetza bazkideen esku egotea eta erantzukizun mugatua izan ziren lan-sozietatea eratzeko bi arrazoi nagusiak.

ASLE elkartearengana jo genuen, forma juridikoari buruzko informazioa eskatzera, eta, geroztik, hemen jarraitzen dugu. Profesionaltasuna, laguntza eta aholkularitza funtsezkoak dira, baina giza kalitatea izan zen hasieratik maitemindu gintuena: Vega eta Margarekin hasieran, haiek baitaude gertuen, baina aukera izan dugu taldekide gehiago ezagutzeko, eta hitz onak besterik ez ditugu guztientzat.

Zer esango zeniokete ekintzaile izan nahi duen pertsona bati?

Bide bakoitza berezia dela, baita ekintzailetza-historia bakoitza ere. Oro har, guretzat oso lagungarria izan da, urratsa egin aurretik, ekiten laguntzeko prestakuntza-ikastaroak egitea, negozio bat kudeatzeko ikuspegi zabalagoa ematen baitizute. Batzuetan, soilik egiten dakiguna ikusten dugu, eta ahaztu egiten zaigu enpresa bat egunero kudeatu behar dela.

Horrez gain, zera esango nioke, argi edukiz gero ekin dezala. Bizitzan arriskatu egin behar da.

→ Ninbo

Ninbo interactive Imanol Pinelo eta Luismi Romerok sortutako enpresa da. Duela ia hamabost urte ezagutu genuen elkar, eta, hamar urte baino gehiagoz zenbait joko garatu ondoren, ekitea erabaki genuen. Ninbo enpresaren helburua da gure bezeroen edukiak bisualagoak, ikusgarriagoak eta entretenigarriagoak izatea. Horretarako, eskuragarri dauden teknologia guztiak erabiltzen ditugu.

Honako hauek garatzen ditugu: proiektu gamifikatuak, jokoak, 3D ondare-birsorkuntza interaktiboak, simulazio txikiak, ibilbide turistikoak, animazio-bideoak... Eskuragarri dauden teknologia guztietan: errealitate birtuala, errealitate areagotua, webguneak, PC, mugikorrak...

Nolakoa izan da zuen ekintzailetza-prozesua?

Batez ere interesgarria eta zalapartatsua. Enpresa eratu genuen COVIDak eragindako itxiera baino hilabete bat edo bi lehenago. Bai, gure errua izan zen, zorte txarrekoak gara :D. Egoera ikusita, garai hori baliatu genuen demo eta portfolio batzuk hobetzeko, egin genezakeena eta izan zitzakeen aplikazioak erakusteko. Kultura eta turismoaren sektorea landu genuen; izan ere, bideojokoen eta diseinuaren mundutik gatoz, eta gertukoak ditugu. Horrez gain, publizitatearekin lotutako guztia prestatu genuen.

Aukera izan genuenean, mugitzen hasi ginen, eta, pixkanaka, hazi egin ziren gure segurtasuna eta egonkortasuna. Urtearen hasieran Unai batu zaigu, eta, beraz, dagoeneko 3 gara!

Zergatik aukeratu zenituzten lan-sozietatea eta ASLE?

Gutxi gorabehera, argi geneukan sortu nahi genuen enpresa mota. Bazkide eta langileen garrantzia interesatzen zitzaigun. Gure asmoa zen enpresaren kudeaketa eta zuzendaritza langileen esku egotea beti. Hala ere, egiten ditugun garapenengatik, interesgarria iruditzen zitzaigun sozietate mugatuen malgutasuna. Guretzat oso arrotza zen gaia, baina Oarsoaldeak ASLE aurkeztu zigunean Anabelen eskutik, argi ikusi genuen. Sentsazioak onak izan ziren, eta iruditu zitzaigun lan-sozietatea bat zetorrela sortu nahi genuen enpresa motarekin. Geroztik, ASLErekiko tratua zoragarria izan da. Anabelez gain, Iñigo eta Alazne ere ezagutu ditugu, eta beti izan dugu harreman ona haiekin arlo guztietan. Gainera, beti argitzen dituzte gure zalantzak, ezagutza handiekin eta azkar. Oso gustura gaude gure erabakiarekin.

Zer esango zeniokete ekintzaile izan nahi duen pertsona bati?

Ene... Enpresa eta pertsona bakoitza mundu bat da. Kontuan hartu behar da hasiera dela zailena. Gustuko ez dituzun gauza asko egin behar dituzu, estresa eta lan-karga handia izango dituzu... Hala ere, bidaiak merezi du, ikaskuntza eta garapen pertsonalagatik. Gomendio zehatz bat emateagatik: Argi eduki lortu nahi duzuna.

Finkatu helmuga. Saiatu eta galdetu. Ez itxaron produktu perfektuak lortu arte. Garatu eta hobetu saldu bitartean.
Ez izan aldatzeko beldurrik. Nahiz eta komunikazio-mailan proiektu mota bat aipatu, zabaldu zure aukerak, zenbait gauza egin ahal izateko, betiere ez baduzu produkturik prest merkaturatzeko, haren potentziala babesteko kontraste erreal batekin. Saiatu ziurtasunak edukitzen, ekonomikoak, proiektuarenak, helburuenak... Bestela, zalantzek ito egingo zaituzte, asko egongo baitira.

→ Conseur

Gure enpresak 20 urte baino gehiago daramatza segurtasun-kontseilariaren figura kanporatzen, eta gainera, honako hauek egiten ditugu: prestakuntza-lanak, kudeaketa-sistemak eta ziurtagiriak, isurketen prebentzioa eta kontrola (isurketak prebenitzeko simulakro eta hornikuntzak) eta mota guztietako ingurumen-zerbitzuak.

Bazkideak: Marisa García, Leire García, Anen Guzmán, Alfonso Fernández eta Jon Garciandia.

Nolakoa izan da zuen ekintzailetza-prozesua?

5 bazkide gara, eta dagoeneko lan egiten genuen Conseur 2000 enpresan. Gainera, gehienok 15 urtetik gorako esperientzia dugu enpresan. Jabeek jakinarazi zigutenean erretiratu egingo zirela, bi aukera genituen: alde batetik, lehiakideek enpresa erostea, eta, bestetik, geuk, langileok, geure gain hartzea enpresa erosteko erantzukizuna, dagoeneko ezagutzen genuen negozioa garatzen jarraitu ahal izateko.

Kalkuluak egin ondoren, ikusi genuen bat zetozela, eta, jakinda aurrera eraman genitzakeela genituen lan guztiak, erostea erabaki genuen. Gure nahia zen enpresa propioa edukitzea, ez egoteko hirugarren baten mende.

Prozesua luzea eta neketsua izan zen zentzu guztietan, baina bagenekien merezi zuela aurrera egiteak. Gaur egun, oso pozik gaude egoera berriarekin.

Zergatik aukeratu zenituzten lan-sozietatea eta ASLE?

Ezagun batzuek dagoeneko lan egin zuten ASLErekin, enpresa lan-sozietate bihurtzeko prozesuan, eta oso pozik zeuden elkartearen lan egiteko moduarekin. Azaldu zigutenez, modu profesionalean kudeatu zuten prozesu osoa.

Ondorioz, gu ere harremanetan jarri ginen taldearekin, eta, egia esan, hasieratik lagundu ziguten behar genuen orotan.

Zer esango zeniokete ekintzaile izan nahi duen pertsona bati?

Zalantzarik gabe, ekiteko esango genioke: izan ere, negozioa ezagutzen badu eta zenbakiak bat badatoz, ausarta izan behar da. Oso atsegina da zure negozioa edukitzea, zure ideiak garatu ahal izateko.

Hala ere, gure kasuan, erosteko negoziazio-prozesua zaila eta luzea izan zen, baina, gure ustez, saria oso handia da, eta, beraz, merezi du. Bizitzan ausartak izan behar dugu.

Informazio gehiago
https://asle.es/eu/

Egin zaitez bazkide



asle